

PRENTSA OHARRA

Udal gobernua harriduraz eta kezka jaso du EAJk Berezaorako eginiko makro-azpiegitura proposamena

Udal gobernua aitortu du hedabide eta etxeetara bidaliriko eskuorri bidez ezagutu duela Berezaoko makro-azpiegituraren proposamena. Eta uste du "arduragabea" dela tamaina horretako proposamena, egungo testuinguruan, aparteko informaziorik barik, zabaltzea

Oñatiko udal gobernua harriduraz jaso du herriko EAJk azken egunetan prentsa bidez zabaldu duen Berezaoko makro-azpiegituraren proposamena. Are: uste du irudi soil baten oinarrituriko tamaina horretako proposamena, egungo testuinguruan, aparteko informaziorik barik (aurrekontua, egingarritasuna, proposamenak beharrezko lituzkeen bestelako esku-hartzeak...), zabaltzea, "arduragabea" dela. "Gainera, futbol zelai berriaren kokapenaren inguruko azterketa bat da martxan. EAJren ekarpenez, aurrekontuetan sartu zuen udal gobernua. Eta, orain, Aloña Mendirekin elkarlanean, lanketarekin dabil udala. Oraindik ez da azterketa horren emaitzarik, baina EAJk futbol zelairako lekua irmoki aukeratua omen du dagoeneko. Ez dugu azterketa eskatu izanaren zergatia ulertzen", gaineratu du.

Bestetik, udal gobernua azaldu du EAJren proposamenak ez duela kontuan hartzen Aloña Mendiren eskaera, kirol elkarteak beharrezko ikusten baitu ohorezko mailan jokatzeko zelai batekin batera, entrenatu eta gazte zein erregional mailan jokatzeko balio lezakeen bigarren futbol zelai bat -aurkezturiko irudiak futbol zelai bat eta kantxa bat ditu barnebidurik-. Halaxe azaldu izan digute Aloña Mendiko kideek aldian aldian haiekin ditugun bileretan.

Era berean, udal gobernua gogora ekarri du bukatu berri dela Zubikoa kiroldegia eraberritzea, eta, beraz, maileguaren ordainketarekin segitzen duela Oñatiko Udalak. Gauzak horrela, kezkatuta agertu da EAJren jokoarekin: "EH Bildu udal gobernuan lehenengoz sartu zenean, 5,7 milioi euroko zorra zuen Oñatiko Udalak. Zorra Ora eroatea, eta, hori egin arte, Zubikoa kiroldegia eraberritzeari ez ekitea erabaki genuen. Aho bateko onarpena izan zuen proiektuak. Kezkagarria da Zubikoa moduko exigentzia handiko azpiegitura bat inauguratu berritan, Berezaokoa moduko makro-azpiegitura bat proposatzea". Bide batez, ekonomikoki egonkor mantentzearen garrantzia azpimarratu du, batez ere, ohikoak ez diren egoerei men eginez, "Covid-19aren kasuan berretsi den moduan". "Egoera ekonomiko egonkorrari eta zentzuz kudeatzeko gaitasunari esker egin ahal izan ditugu egindako guztiak", argitu du.

Ostera, udal gobernuaren aburuz, EAJk Berezaorako aurkezturiko makro-azpiegituraren proposamena ez da errealista, eta, horregatik ere, "kezka" agertu du. "Errealista ez den zerbait, irudi soil bat erabiliz, errealista moduan aurkeztu die EAJk herritarrei", dio. Eta aitortu du hark ere hedabide eta etxeetan banaturiko eskuorri bidez ezagutu duela proposamena. Bide batez, EAJri gogorarazi dio badaudela bide zuzenagoak proposamenak egiteko, "are, Berezaokoa moduko makro-azpiegitura proposamenak aurkeztu gura direnean".